

EUSKADIKO IRAKURKETA PUBLIKOKO SAREKO LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGU ZERBITZUA KUDEATZEKO ESKULIBURUA

Dokumentu honek Euskadiko liburutegi publikoen on-line sareko liburutegien arteko dokumentu-maileguak kudeatzeko prozedura jasotzen du.

Liburutegien arteko mailegua Absysnet-eko mailegu-eskaerak egiteko moduluaren bitartez egingo da.

Mailegu-eskaerak egiteko modulu horrek kudeatzen ditu, baita ere, OPACetik erabiltzaileek egiten dituzten mailegu-eskaerak. Horregatik, eskuliburuak eskaerei buruzko argibideak ematen ditu, garrantzitsuak baitira liburutegien arteko maileguak egoki kudeatzeko.


OPAC-ETIK DATORREN ESKAERA BIDERATZEA

Sareko liburutegien arteko mailegu-zerbitzuaren gaineko araudiak ez du uzten erabiltzaileek liburutegiarteko mailegu-eskaerak OPACetik egitea. OPACen bitartez, erabiltzaileek Sareko edozein liburutegitan mailegatzeko moduan dagoen edozein dokumentu eska dezakete. Baina, kasu hauetan, jasotzen deneko liburutegiarena da eskatutako ale hori (sukurtsal bat baino gehiago dituzten liburutegiak salbu). Mugitzen dena ez da liburua, erabiltzailea baizik. Beraz, OPACetik datozen eskaera guztiak ez dira liburutegiarteko maileguak.

Esana geratu denez, OPACetik datozen mailegu-eskaerak sareko liburutegien arteko mailegu-eskaerak bezalaxe kudeatzen dira. Dagoen alde bakarra itzulketan datza.

Liburua itzultzen dugunean, honako galdera duen lauki bat azalduko zaigu: «Mailegu hau eskaera-mailegutik dator. Prozesu hau eskaera-mailegua bezalako bukatu nahi al duzu?»

OPACetik datorren eskaera bada, EZ erantzungo dugu BETI. Horrela, eskaera bukatutzat eman behar izan gabe kudeatuko du itzulketa aplikazioak; alea itzulitzat joko da, eta berriz ere mailegatzeko moduan geratuko da. Horrela egin ezean, aplikazioak ulertuko du prozesua ez dela amaitu eta, horrenbestez, ale hori ezin dela maileguan utzi. Gainera, estatistiketan jasota geratuko da galderari emandako erantzuna, eta oker erantzunez gero, datu hori hortxe geratuko da sareko liburutegien arteko maileguen datuetan erregistratuta.



SAREKO LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGU-ESKAERAK BIDERATZEA

Nahiz eta atzean erabiltzaile baten eskaria egon, sareko liburutegiarteko mailegua gauzatu beti gauzatzen da liburutegien artean. Behin erabiltzailearen eskaria jaso ondoren, prozesuan inplikaturako liburutegiek ondoren zehazten diren urratsak egin behar dituzte.

Oso garrantzitsua da urratson hurrenkera errespetatzea, alegia, mailegu-eskaerak kudeatzen dituen moduluan agertzen diren “egoera” adierazpideetan jasotakoa. Hurrenkera errespetatu ezik, tarteko urratsik huts eginez gero, ez dago atzera bueltatzerik.

“Egoera” guztiak, E-Jasoa izan ezik, parametrizatuta daude eskuz aldatuak izateko eta inolako denbora-mugarik ez izateko (adibidez, liburu bat galtzen bada T-Norako bidea egoeran dagoela, egoera horretantxe egongo da agertu, liburutegi eskatzaileak jaso eta egoera aldatzen den arte).

E-Jasoa egoera da automatikoki aldatzen den bakarra. Erabili den parametrizazioaren arabera, zazpi egun pasatzen badira erabiltzaileak alea jaso gabe, eta hortaz mailegua gauzatu gabe, automatikoki S-Nondikako bidea egoerara pasako da eta liburutegi mailegatzailera itzuliko da.

Denbora-tarte hori da, hain zuzen, mezulari-zerbitzuak sukurtsal bati egindako bi bisitaren artean pasa litekeen gehieneko denbora.

X-Arazoak egoera bakarrik erabiliko da baldin eta, justifikaturako arrazoiren bat dela medio, ez badugu alea mailegatuko. Ez da beste inongo kasutan erabiliko (adibidez, eskatu diguten alea aurkitzen ez badugu, B-Bilaketa egiten egoera erabiliko dugu, eskaera bertan behar beste denbora egon baitaiteke).

1. Mailegu-eskaera berria sortzea (liburutegi eskatzailea)

Erabiltzailearen eskaera jaso ondoren, eman beharreko lehen pausoa mailegu-eskaera berri bat sortzea da.

Mailegu-eskaera berri bat egiteko, Mailegu-mugimendua<Mailegu-eskaera tokitik abiatu behar dugu. Behin mailegu-eskaeren pantailan egonda, eskaera berri bat gehitu behar dugu.

- a) Irakurlearen xehetasunak gunean, Irakurlea izeneko eremuan, eskaera egin nahi duen irakurlearen zenbakia hautatuko edo bilatuko dugu, eta “Onartu” klikatuko.
- b) Alearen xehetasunak gunean, alea bilatu behar dugu eta “Onartu” klikatu. Azkarrena barra-kodea sartzeari da, eskaera egiteko nahitaezko eremua baita. Aurrez ez badakigu alearen barra-kodea zein den, eskatu nahi dugun ale zehatz hori zein den jakiteko datu erabilgarri bat da sukurtsalaren kodea. Alearen bilaketa edozein eremutan egiten dugunean kode hori sartzen badugu, gero errazago aurkituko dugu barra-kodea.
- c) Eskaera gunean data, egoera eta erakusmahaiari buruzko datuak jarri behar dira. Mailegu-eguna eremua automatikoki betetzen da eskaera egiten den egun eta orduarekin batera. Azken eragiketa eremua automatikoki betetzen da azkenekoz egindako mailegu-eskaera egiten denean. Erakusmahaiaren eremuan irakurleak eskatu duen alea zein erakusmahaitan jasoko duen hautatuko dugu. Erakusmahaiak beti izan behar du liburutegi eskatzailearena. Egoera eremua automatikoki betetzen da R-Eskaera-mailegua batekin. Oharra eremuan eskaerari buruzko edozein ohar idatz daiteke.

Eskaera onartzen denean , eskaera “OPACen ez dago erabilgarri” egoerara pasako da.

Garrantzitsua da kontuan hartzea pantaila batetik beste pantaila batera bagoaz lehendabizikoan sartutakoa grabatu gabe (adibidez, aleari buruzko katalogoan kontsultatzeko), mailegu-eskaeraren modulura itzultzen garenean jasota genituen datu guztiak galduko direla. Horregatik, komeni da eskaerari ekin aurretik eskaera egiteko datu guztiak jasotzea (bereziki alearen barra-kodea).

2. Egin gabe dauden eskaeren kontsulta (liburutegi mailegatzailea)

Liburua mailegatuko duen liburutegiak jakin behar du zein mailegu-eskaera dituen bideratu gabe horiei ekin ahal izateko. Horretarako, Mailegu-mugimendua<Egin gabeko eskaerak gunetik edo Mailegu-mugimendua<Mailegu-eskaerak gunetik egin liteke (alearen xehetasunetan agertzen den liburutegi-sukurtsalarenak aukeratu behar dira).

Eskaeraren erakusmahaiak ez badator bat gure liburutegi-sukurtsalekoarekin, liburutegiarteko mailegua dela ondorioztatuko dugu.

Kontsulta Mailegu-mugimendua<Egin gabeko eskaerak gunetik egiten badugu gezidun ikurrean klik eginez, eskaeraren egoera aldatu eta B-Bilaketa egiten egoerara pasako da alea bilatzen dugun bitartean, eta T-Norako bidea egoerara jada liburutegi eskatzaileari bidaltzen diogunean. Une honetan eskaera desagertu egiten da bideratzeke dauden eskaeren modulutik, eta soilik mailegu-eskaeretatik kudeatzen da hortik aurrera.

Eskaerak							
Egoera	Kok.	Barra-kodea	Titulua	Signatura	Bz.etik.-os.	Mailegu-eguna	Erakusmahaia
  B AOR		4009649	Buda, el príncipe de la luz : su vida, su enseñanza	294/CAL/bud	SP	26/02/2008 13:05	086 086
  B AOR		4002983	Diario de una buena vecina	N/LES/dia		29/02/2008 17:54	222 222
  B AOR		5625800	El Alzheimer de la A a la Z : todo lo que necesitas saber so	616 LOK alz		03/03/2008 10:06	277 277
  R KBI		4007366	El primer año en la vida de un niño	649.1/---/pri	V.1	30/04/2008 11:31	256 256
  R KBI		4007367	El primer año en la vida de un niño	649.1/---/pri	V.2	30/04/2008 11:31	256 256
  R KBI		4007368	El primer año en la vida de un niño	649.1/---/pri	V.3	30/04/2008 11:31	256 256

Kontsulta Mailegu-mugimendua<Mailegu-eskaerak gunetik egiten badugu, eskaera-egoerak ere aldatu beharko ditugu, baina Aldatu gunean sartuta egingo dugu.

Oso garrantzitsua da liburutegiek jakin dezaten zein eskaera dituzten bideratzeke. Programak alerta-sistematik ez duenez, hori jakiteko modu bakarra egunez egun egin gabe dauden eskaerak kontsultatzea da.

Liburutegi mailegatzaileak ez du inoiz ere alea mailegatuko. Hori liburutegi eskatzaileari dagokio, bertan eskatu baitu erabiltzaileak liburua jasotzea.

3. Alea jasotzea eta mailegua egitea (liburutegi eskatzailea)

Alea liburutegi eskatzaileira iristen denean, liburutegiak Mailegu-eskaerak gunean sartu eta egoera aldatuko du: T-Norako bidea egoeratik E-Jasoa egoerara.

Irakurlearentzako abisuaren berri ematen duen eskutitz bat sortuko da, eta alearen barra-kodea behin-behingoaz liburutegi eskatzailearena izango da, zeinak alea arazorik gabe mailegatu ahal izango duen Mailegu-mugimendua<Maileguak gunetik. Eskatutako alea liburutegi eskatzailean mailegatuko da BETI, eta mailegua irakurle eskatzailearen aurrean egingo da.

Behin liburutegi eskatzaileak eskaeraren egoera aldatu eta E-Jasoa egoerara pasaz gero, mailegua egiteko epea zazpi egunekoa izango da. Epe horretan irakurleak alea jasotzen ez badu edo mailegua ez bada zuzen egin Mailegu-mugimendua<Maileguak gunetik, sistemak automatikoki aldatuko du eskaeraren egoera S-Nondikako bidea egoerara.

Sareko liburutegien artean egiten diren maileguak berritzeko aukera dago, alegia, irakurleak OPACetik zuzenean berritu ditzake edota liburutegira bertara joanda.


Alea mailegatuta dagoen bitartean desagertu egiten da Mailegu-eskaeretatik, eta ohiko mailegu arrunt bat bihurtzen da, nahiz eta sistemak eskabidetzat kontrolatuta duen.

Mailegatutako aleen gaineko kontrol handiago bat bermatzeko, zerrenda berri bat sortu da maileguen kontsultan.

4. Alea itzultzea (liburutegi eskatzailea)

Behin irakurleak alea itzuliz gero, itzulketari ekingo diogu Mailegu-mugimendua<Itzulketak gunetik. Une horretan, sistemak esango digu mailegua eskabide baten ondorioz sortu zela eta zera galdetuko digu: *«Mailegu hau eskaera-mailegutik dator. Prozesu hau eskaera-mailegua bezalako bukatu nahi al duzu?»*

Oso garrantzitsua. Sareko liburutegien arteko mailegua denez, BAI klikatuko dugu BETI. Horrela, alea itzulitzat joko da, baina ez da erabilgarri egongo, zeren prozesua ez baita oraindik amaitu alea ez delako liburutegi mailegutailerara itzuli.



5. Alea liburutegi eskatzailetik liburutegi mailegatzaileira eramatea

Behin itzuliz gero, liburutegi eskatzaileak liburutegi mailegatzaileira bidali behar du alea. Horretarako, Mailegu-mugimendua<Mailegu-eskaera gunean sartu, S-Nondikako bidea egoerara aldatu, eta mezulari bidez bidaliko du.

6. Eskaera amaitzea (liburutegi mailegatzalea)

Alea jatorrizko liburutegira iristen denean, liburutegiak prozesua amaitu egin behar du. Ez du itzulketarik egingo (liburutegi eskatzaileak dagoeneko egina du). Sartu behar du Mailegu-mugimendua< Mailegu-eskaerak gunean, eta aldatu F-Amaiera egoerara

Oso garrantzitsua da sareko liburutegien arteko mailegu-eskaerak ondo amaitzea. Zuzen amaitu ezik, liburua ezin da mailegatu eta estatistikak okerrak dira.

SAREKO LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGU-ESKAEREN KONTSULTA ESTATISTIKOAK

Sareko liburutegien arteko maileguak beste gainerako maileguekin batera kontabilizatzen dira, eta hileroko maileguen kontaketan jasotzen dira. Hau da, sistemak batu egiten ditu sareko liburutegien arteko maileguak eta beste mailegu guztiak. Prozedura horrek, beraz, ez ditu liburutegien arteko maileguen gaineko datu zehatzak ematen.

Eskaeretatik datozen maileguei buruzko estatistika-datuak jakiteko, Mailegu-mugimendua<Maileguen kontsultak<Eskaera-kontsultak gunera joan beharra dago.

Edozein kontsultatan, sistemak aukera ematen digu hainbat parametroren arteko konbinazioen bitartez lortu nahi ditugun datuak diskriminatzeko (mailegu-eguna, maileguaren erakusmahaia, alearen sukurtsala...).

OPAC-etik egindako mailegu-eskaerak mailegu-eskaeren modulutik kudeatzen direlarik, kontsulta hauen bitartez beren jatorria OPAC-Weben duten eskaeren nahiz liburutegien arteko maileguaren ondorioz sortutako eskaeren datuak lor ditzakegu.

1. Estatistikak

Mailegu-eskaerei buruzko estatistikak eskuragarri daude eskaera-kontsulta modalitate guztietan (aktiboa, aktibo/historikoa eta historikoa).

- Mailegu-eskaeren estatistika.** Mailegu-eskaera guztien berri ematen du (OPAC-LAM), sukurtsalari, erakusmahaiari eta ale-motari buruzko informazioa.
- Mailegu-eskaeren estatistikak, lurralde historiko, liburutegi eta eskaera motaka.** Mailegu-eskaerei buruzko datuak ematen ditu, baina lurralde historikoaren arabera liburutegika eta erakusmahaika antolatuta. Mailegu-motak letra ezberdinen arabera identifikatzen ditu: W, OPAC-Web-etik egindako eskaera; U, liburutegietatik egindako mailegua, bai LAMen kasuan bai bestelako maileguetan.; S, erreserba batetik datorrenean.
- Eskaera-estatistikak (OPC-Web eta LAM), erakusmahaiaren arabera.** Maileguak jasotzen diren erakusmahaiaren arabera eskaintzen ditu datuak.
- Eskaera-estatistikak (OPC-Web eta LAM), aleen sukurtsalaren arabera.** Alearen sukurtsalaren arabera eskaintzen ditu datuak.

- e) Eskaera-estatistikak (OPC-Web). Estatistika honen bidez OPACetik datozen maileguak jakin daitezke.
- f) Eskaera-estatistikak (LAM), erakusmahaiaren arabera. Estatistika honen bidez alearen erakusmahaiaren arabera egindako sareko maileguak jakin daitezke.
- g) Eskaera-estatistikak (LAM), aleen sukurtsalaren arabera. Estatistika honen bidez alearen sukurtsalaren arabera egindako sareko maileguak jakin daitezke.

2. Zerrendak

Mailegu-eskaeren zerrendak izan ezik –horiek kontsulta aktiboetan zein historikoetan eskuratu baitaitezke (ez, ordea, bion arteko konbinazioan)–, gainerako zerrendak eskaera aktiboen kontsultan lortu daitezke bakarrik.

- a) Mailegu-eskaeren zerrenda. Zerrenda bat ematen du, irakurlearen datuak, alearenak eta eskaerarenak (datak eta egoera) dituenak.
- b) Eskaera-zerrenda (OPC-Web eta LAM), erakusmahaiaren arabera. Maileguak jasotzen direneko erakusmahaiaren arabera eskaintzen ditu datuak. Erakusmahaiaren berri ematen du, maileguaren egoerari buruz, aleari buruz (alearen sukurtsalari buruz ere bai), bai eta ale-motari buruz ere.
- c) Eskaera-zerrenda (OPC-Web eta LAM), aleen sukurtsalaren arabera. Sukurtsalaren araberrako datuak eskaintzen ditu, maileguaren egoera, alearen datuak, mailegatu deneko erakusmahaia eta ale-mota barne.
- d) Eskaera-zerrenda OPAC-WEB. Zerrenda honen bidez OPACetik datozen maileguak jakin daitezke. Mailegatu direneko erakusmahaiaren datuak eskaintzen ditu, jatorrizko sukurtsalarenak eta maileguaren egoerarenak.
- e) Eskaera-zerrenda (LAM) erakusmahaiaren arabera. Zerrenda honen bidez mailegu-erakusmahaiaren arabera egindako sareko maileguak jakin daitezke. Eskaera-egoerari buruzko datuak ematen ditu, azken eragiketari buruzkoak eta alearen datuiei buruzkoak (bere sukurtsalari buruzkoak barne).
- f) Eskaera-zerrenda (LAM) aleen sukurtsalaren arabera. Zerrenda honen bidez alearen sukurtsalaren arabera egindako sareko maileguak jakin daitezke.

Mailegu-eskaeren kontsultari buruzko modulutik lortzen diren zerrendez gainera, Mailegu-mugimendua< Maileguen kontsultak modulutik eskuratzen den zerrenda berri bat sortu da (irakurlearen arabera, alearen arabera, irakurle/alearen arabera). Zerrenda berri horren bitartez, hobeto kontrolatuko dira, mailegatuta dauden bitartean, liburutegien arteko maileguetatik datozen aleak.

- a) LAM mailegu zerrenda. Zerrenda honen bitartez jakin dezakegu mailegu aktiboen artetik zenbat datozen liburutegiarteko maileguetatik. Irakurleari buruzko datuak ematen ditu (zenbakia eta izena), aleari buruz (barra-kodea eta izenburua), itzultzeko data, mailegu-erakusmahaia eta liburuaren jatorrizko sukurtsala. Kontsulta irakurlearen arabera egiten bada, jakin dezakegu zein irakurlek duen LAMetik datorren dokumentu bat mailegatua, zein egunetan itzuli behar duen –eta, beraz, epea igarota den ala ez–,

maileguaren erakusmahaia (gure erakusmahaia bera izango da, salbu eta irakurleak eskaera beste liburutegiren batetik egin badu) eta alearen jatorrizko sukurtsala (zein liburutegitatik jaso duen liburua). Kontsulta alearen arabera egiten badugu, jakin dezakegu zenbat ale dauden mailegatuta liburutegien arteko maileguaren bidez, bai eta itzultzeko datak eta zein erakusmahaitan mailegatu diren ere.